EKONOMIA SOLIDARIOAREN PRINTZIPIOEN GUTUNA

Agiri honetan Ekonomia Solidarioaren ezaugarriak bildu ditugu, betiere REAS edo Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarearen ikusmoldetik. Ezaugarri horiek, izan ere, Ekonomia Solidarioan diharduten erakundeen ikuspegia eta jarduera gidatzen dituzte, bai eta beste eragileekiko harremanak ere, eta mugimenduak oro har bultzatzen duen proiektu ekonomikoa, soziala eta ekonomikoa ere bai.

Printzipioen Gutunaren lehen bertsioa 1995ean prestatu, eta 2000n eta 2011n berrikusi zen. 2022an, edukien eguneratzea dakargu, hainbat arlotan gertatu diren aldaketekin bat, hau da, bai tokiko testuinguruetan nahiz globaletan, bai alternatiba ekonomiko eraldatzaileetan, bai Ekonomia Solidarioaren mugimenduan bertan. Horren haritik, begirada feministagoa eta ekologistagoa txertatu dugu, aurre egin behar baitzaio planetak egun duen abaguneari, hots, larrialdi eta erronka ekosozialei erantzun behar zaie lehentasunez, biziaren jasangarritasuna bera baitago kolokan.

Agiri honetatik ondorioztatu daitekeen bezala, Ekonomia Solidarioaren –Ekonomia Sozialaren barruko ildoa den heinean– ikuspegiak eta jarduerak biziaren jasangarritasunerako prozesuak jartzen dituzte jarduera sozioekonomikoaren erdigunean; horrenbestez, pertsonak, komunitateak, herriak, kulturak, ingurumen-ingurunea eta ondasun komunak kapitalaren eta metaketaren gainetik paratzen dituzte.

Horrela, Ekonomia Solidarioak ekimen alternatiboak sustatu eta garatzen ditu ziklo ekonomikoaren arlo guztietan (finantzazioa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa), betiere hainbat baliotan oinarrituta, hala nola lankidetzan, elkarrekikotasunean, autokudeaketan eta elkartasunean, besteak beste. Hori guztia, ikuspegi eraldatzailetik begiratuta, ekonomia komunitarioagoak, demokratikoagoak, ekitatiboagoak, inklusiboagoak eta jasangarriagoak eraikitze aldera. Azken buruan, ekonomia feministak, ekologistak eta solidarioak eraikitze aldera.

Ikuspegi horretatik, Ekonomia Solidarioaren proposamenek ekonomia kapitalistaren garapenari egiten diote aurre. Ekonomia kapitalista, izan ere, finantziarizatua dago, ekonomia errealetik urrun, ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkunde mugagabea ardatz harturik dihardu, horrek gizartearentzat eta ingurumenarentzat kalteak badakartza ere, eta irabazi-asmoa beste helbururik ez du, bai eta ahalik eta etekinik handienak eskuratzea ere; horrek prekarietate, pobrezia eta desberdintasun jasanezinak eragiten ditu.

Ez da sistema ekonomiko hutsa, soziopolitikoa eta kulturala ere baizik; hau da, identitate maskulino, heterosexual, zuri, arau-emaile, helduzentriko eta urbanitak bere pribilegioei eusten die bestelako genero eta sexu identitate eta joeren gainean; ondorioz, desberdintasunean eta bazterkerian oinarritutako harremanak sortzen dira.

Sistema hori, gainera, ekozida da, hau da, ez du kontuan hartzen planetak bere muga biofisikoak gainditu dituela. Eredu horrek hainbat kalte dakartza; besteak beste, ekosistemen suntsiketa, aztarna ekologikoaren areagotzea, berotze globala edota biodibertsitatearen galera eta, horrez gain, biziaren jasangarritasuna bera jartzen du arriskuan; horrenbestez, etorkizuneko belaunaldien existentzia jarri du arriskuan.



Sistema hori, azkenik, demokraziaren aurkakoa da, kontroletik kanpo dihardu eta pertsonen, gizarte taldeen eta herrien gainetik dago. Gainera, alternatiba bakar gisa inposatzen da, ekonomiarako ez ezik, gizarterako, politikarako eta kulturarako ere bai. Inposaketa horren barnean, indarkeria erabiltzen da herritar sektore askoren bizitzaren eta giza eskubideen aurka; era berean, bestelako indarkeria sotilagoak eta lausoagoak darabiltza.

Ekonomia Solidarioan ari garenok eredu berrietaranzko trantsizioa aldarrikatzen dugu. Bada, agiri honetan bildu ditugun sei printzipio horiek, hau da, ekitateak, lan duinak, jasangarritasun ekologikoak, aberastasunaren bidezko banaketak eta ingurunearekiko konpromisoak, ekimen, espazio eta sare eraldatzaileak ahalbidetu beharko dituzte eredu horietan, gizartea eta ekonomia aldatzeko.

Agiri hau ez da testu itxia eta ez du erabateko zehaztasunez definitu nahi aipatutako printzipio bakoitza. Agiri hau, izan ere, talde prestaketaren eta elkarlanaren emaitza da. Bide horretan jende, erakunde eta sare aunitzek hartu dute parte, eta guztiak ere ari dira Ekonomia Solidarioaren balioak eta jarduerak zabaldu eta garatu nahian, oinarri harturik bai beren eskarmentua, bai eguneroko zeregina, bai eta beren amets eta xedeak ere.

REAS-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sareak, agiri honen bidez, bera mugimendu gisa ezaugarritzen duten ezaugarri nagusiak azaldu nahi ditu jendaurrean eta, horrekin batera, bere baitan bilduriko sare eta ekimenen jarduerak hobetu, beste ekonomia eraldatzaileekin harremanetan aritu, eta aliantzak eta elkarlanak sustatu alternatiba sozioekonomikoak eraiki behar direla pentsatzen duten beste sare eta erakundeekin.

PRINCIPIOS DA ECONOMÍA SOLIDARIA

EKITATEA

LAN DUINA

JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA

LANKIDETZA

ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA

INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA

EKITATEA

Era askotako desberdintasun eta zapalketak eragitea ezaugarri duen sistema horren aurrean, Ekonomia Solidarioak eredu berrietarantz jotzeko trantsizioa proposatu du. Eredu horietan, ekitateak osagai nagusia izan behar du pertsonen, komunitateen eta herrien arteko harremanetan, bai eta planetarekiko harremanetan ere. Dibertsitatea positiboki aitortu eta txertatuko duten harreman horizontalak izanen dira.

Justiziaren eta dibertsitatearen ikuspegi osagarriak gehitzen dio ekitateak berdintasunaren helburuari. Horrek berekin dakar aukera, baldintza eta tratu berdintasuna aitortu eta aintzat hartzea eta, aldi berean, betebeharren, baliabideen eta arduren bidezko banaketa ezartzea. Balio hori beharrezkoa da jende orok bizitza ona bizitzeko duen eskubidea aitortu eta bermatzeko, unibertsaltasun eta berezitasun printzipioekin bat, bai eta haien interesen eta bizitza premiekin bat ere.

Ekitatea sustatzeak berekin dakar bermatzea pertsona guztiek dutela menderatze-harremanen azpian ez egoteko eskubidea, edozein izanik ere beren egoera sozioekonomikoa, generoa, sexu-orientazioa eta sexu-joera, adina, kultura, jatorria, sinesmenak, hizkuntzak, legezko egoera, gaitasunak… bai eta bazterkeria pairatzen duen beste ezaugarri oro ere.

Ekitate printzipioa Ekonomia Solidarioaren ekimenetan txertatuz, Ekonomia Solidarioaren izaera eraldatzaile eta inklusiboa indartzen da eta espazio bizigarriak eraikitzeko lana lehenesten, batetik, pribilegioak zalantzan jartzeko eta, bestetik, pertsona orok parte hartzeko aukera izan dezan bere dibertsitatea aitortuta. Azken buruan, aukera berdintasuna sustatzen duten espazioak behar dira, sistema zapaltzaileak ikustarazi eta eraldatzen dituztenak, eta eredu ekitatiboago eta erantzunkideagoetara jotzeko trantsizioa ahalbidetuko dutenak.

Ekitate printzipioarekiko konpromisoari atxikiak daude Ekonomia Solidarioan diharduten erakunde eta sare guztietan aldez edo moldez sarturik dauden egitura eta pertsona guztiak, baina printzipio horretan oinarriturik ere ehundu behar dira beste pertsona eta gizarte erakundeekiko harremanak.

Era berean, irizpide horrek gidatuko ditu gizartearekin oro har eta hurbileko nahiz urrutiko landa- zein hiri-lurraldeekin egiten diren harremanak eta, bereziki, desberdintasuna eta bazterkeria mailarik handienak pairatzen dituzten pertsonekin eta komunitateekin egiten direnak.

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

Pertsonen artean, erantzunkidetasuna erraztuko duten elkarrekikotasunezko harremanak sustatzea, elkarri laguntzeko balioetan eta jardunean oinarriturik

---

Lan produktibo, erreproduktibo eta zaintza lan guztiak berdintasunez banatu daitezela ziurtatzea

---

Ondasunak eta zerbitzuak modu etikoan eta bidezkoan baloratzea, pertsona guztiek eskura eta erabilgai izan ditzaten

---

Kalteberatasun-egoeran eta desabantaila sozialean dauden pertsonak prozesu osoan aintzat hartuko dituzten espazioak eta jarduerak antolatzea, eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatuz eta ekintza positiboaren, prestakuntzaren eta gaitasunak garatzearen bidez haien gizarteratzea erraztuz

---

Botere-dinamika baztertzaileak eta maiz ikusezinak sor ditzaketen gobernantza egiturak eta praktikak birpentsatzea eta eraldatzea: erabakiak hartzeko prozesuak, emozioen kudeaketa, zereginen banaketa, gatazken erabilera, etab

---

Antolamendu esparru guztietan parte-hartze aske, horizontal eta ekitatiborako eskubidea bermatzea, eta informazioa eskuragarria, argia eta ohikoa izan dadila ziurtatzea

LAN DUINA

Enplegu edo okupazio hutsa izateaz gain, lana giza jarduera da eta bizitzaren sostengarritasuna ahalbidetzen du, bai eta bizitza kontu handiz tratatzea nahiz erreproduzitzea ere, bai orainean, bai etorkizunean. Hori dela eta, Ekonomia Solidarioak pluralean hartzen ditu lanak aintzat, hau da, lan produktiboak eta erreproduktiboak, profesionalak eta borondatezkoak, ordainduak eta doakoak.

Era berean, lana talde ekintzarako tresna bat dela ulertzen dugu, jendearen premien eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzuan dagoena, pertsona bakoitzaren eta gizartearen ahalduntzera eta gaitasunak garatzera bideratua.

Elkarren arteko mendekotasuna eta ekomendekotasuna oinarrizko eta premiazko prozesuak dira gure biziraupenerako eta halakotzat onartzen ditugu. Horrenbestez, pertsonen arteko, komunitateen arteko eta planetarekiko zaintza lanak lehentasunezkotzat jotzen dira gizartea antolatzeko. Ardura partekatzea eta hura berdintasunez banatzea ezinbestekoa da pertsonen, komunitatearen eta haien ingurumen-inguruneren bizi-kalitatea sustatzeko, bai eta harreman sozial eta ekonomiko bidezkoak garatzeko ere.

Hori dela eta, Ekonomia Solidarioak enplegu duin, osasungarri eta emanzipatzailea sustatzen du, oinarri harturik bai lankidetza, bai soldaten oreka, bai eta erabakietan eta ekoizpen bideen jabetzan parte hartzeko eskubidea ere. Enpleguak gizartearendako erabilgarriak diren ondasun eta zerbitzuak ekoiztu behar ditu era ekitatiboan eta jasangarrian.

Bizitzaren pobretze kronikoa eta prekarizazioa eragiten duten dinamikak gainditze aldera, Ekonomia Solidarioaren esperientziek behar diren baliabideak eta denbora eskaintzen dizkiete pertsonei, bizitzea merezi duten bizitzak goza ditzaten. Horretarako, ekimen kooperatiboak, autokudeatuak, parte-hartzaileak eta gardenak sustatzen dituzte, premiak asetzeko eta pertsona bakoitzaren eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzeko. Ekimenok pertsona bakoitzaren gaitasunen garapena bermatu behar dute eta, bermatu ere, bai lan guztien banaketa, bai enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea, zertarako eta gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko, aukera berdintasuna oinarri harturik.

Lan guztien banaketa, balorizazio eta berrantolaketa sozial berria egiteko proposamenaren bidez, Ekonomia Solidarioak aldaketa kulturala bultzatzen du, pertsonen bizitzari datxezkion arloen arteko zatiketa eta menderatze alorreko logika dualistak gainditze aldera. Azken buruan, xedea da bizitzaren balioa handitzea bere dimentsio eta etapa guztietan.

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

Lan guztien banaketa sustatzea (ordainduak edo ez), lan produktiboaren eta erreproduktiboaren balio soziala eta ekonomikoa parekatzea, eta errentaren bidezko banaketa ere sustatzea, bizitza ona bermatzeko

---

Zaintzen antolaketa sozial berri bat sustatzea, zaintzak ardura partekatuan eta lanen banaketan oinarriturik bermatzeko, arlo pribatu, komunitario eta publikoan

---

Komunitatearen antolaketa eta parte-hartzea bultzatzea, elkartasun ekonomikoa, gizarte-premiak asetzea eta ongizatea sustatzen dituzten gizarte ekimenak bultzatzeko, diruaren bitartekotzarekin edo bitartekotzarik gabe

---

Baliabideak lortzeko beharrezkoak diren lan eta gizarte aukerak eskuratzeko oinarrizko eskubidea defendatzea eta bermatzea pertsona guztiendako

---

Aniztasuna kudeatzeko eta edozein motatako bazterkeria pairatzen duten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko gai izanen den enplegu duina, emantzipatzailea eta inklusiboa garatzea

---

Bizitzaren jasangarritasunerako erakunde bizigarriak eta erantzunkideak eraikitzea, kontuan harturik bai zaintzen gizarte, ingurumen eta komunitate arloko dimentsioak, bai pertsonek lana beren trebetasunen eta irriken arabera aukeratzeko duten gaitasuna

---

Enpresa horizontalak, askotarikoak eta demokratikoak bultzatzea, partaidetza, lidergo kooperatiboa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko, betiere prozesuetan eta harremanetan arreta jarriz, eta osasun emozionala eta zaintzak emateko eta jasotzeko beharra antolaketaren kulturan txertatuz

JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA

Giza jarduera oro ekomendekoa da; horrenbestez, jasangarritasun ekologikoaren ikuspegitik, jarduera horrek ingurumen-mugak dituela aitorturik, natur ingurunearekiko bizikidetza onuragarrirako konpromisoa sustatzen da, bai eta haren aberastasuna oraineann eta etorkizunean mantentzeko konpromisoa ere.

Ekonomia Solidarioak aitortzen du natura subjektu eskubideduna dela; hortaz, izaki bizidunak eta bizitzaren erreprodukzioa jartzen ditu prozesu sozial eta ekonomiko ororen erdigunean. Horregatik, planetaren muga biofisikoak onartu, ekosistemen jasangarritasuna sustatu eta haiek zaintzeko konpromisoa hartu du. Horren haritik, jasangarritasun ekologikoa printzipio nagusitzat jo du planetaren osasunarekin nahiz bizitzaren jasangarritasunarekin duen konpromisoan, izaki bizidun guztien biziraupena ziurtatu beharra onartuta.

Ikuspegi horrekin bat, Ekonomia Solidarioak beharrezkotzat jotzen du desazkunde materialari ekitea, baliabide mugatuko planeta ustiatu duen prozesu historikoaren ondorioz. Trantsizio ekologikoarekiko konpromisoari eutsiko bazaio, desazkundea eragin behar da, bai baliabide naturalak erauzteko prozesuetan, bai energia-iturrien erabileran, bai lur emankorren ustiapen neurrigabean, bai egungo ekoizpen eta kontsumo mailetan, biodibertsitatea eta bizitzarako beharrezkoak diren ekosistemak suntsitzen dituztelako.

Natur baliabideak hipotekatu eta gizakiaren bizitza bera nahiz bizi-adierazpen oro arriskuan jartzen dituen krisi ekosozialaren aurrean, Ekonomia Solidarioak paradigma berri bat sustatzen du, planetako bizitza sentitzea eta hura sostengatzea ardatz harturik. Horretarako, konpromisoa hartzen du kalte gehiago ez eragiteko eta ingurumen-inguruneak leheneratzeko, naturarekiko bizikidetza erakutsi eta praktikatzen duten herrien eta kulturen mundu-ikuskeretatik ikasita, eta naturako zikloak eta prozesuak errespetatuta.

Egungo eredu sozioekonomikoak eragiten duen prekarietatearen, pobreziaren eta desberdinkeriaren aurrean, Ekonomia Solidarioak jasangarritasun ekologikoarekin duen konpromisoak justiziako eta elkartasun globaleko logikak ditu oinarri, aberastasunaren banaketa izan dadin bizitza eta planeta zaintzen dituen eredu berri horretako ardatz nagusia

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

Ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu kontzienteak, arduratsuak, kritikoak eta eraldatzaileak garatzea, kate ekonomiko osoan jasangarritasun ekologikoa bermatzeko, t okiko eta hurbileko zirkuitu ekonomikoen garapena bultzatuz

---

Material eta baliabide ekoiztuak eta erabiliak murriztu, konpondu, berreskuratu, berrerabili eta birziklatzea, jarduera ekonomikoen ingurumen-inpaktua mugatuta

---

Ingurumen eta gizarte arloko bidezko irizpideak erabiltzea, harreman ekonomikoak eta merkataritza akordioak bultzatzeko, bai eta produktuen eta zerbitzuen erakunde hornitzaileak aukeratzeko ere

---

Birsortzeko kultura sustatzea, planetako ekosistemak eta ziklo naturalak lehengoratzeko, biodibertsitatea leheneratu eta zaintzeko, eta ingurumenean eragindako kaltea konpontzeko

---

Ingurumen arloko praktika alternatiboak esparruotan sustatzea: etxebizitza kooperatiboetan, hirigintza sozialean, eta esparru publikoen eta lurraldearen desmerkantilizazioan

---

Landa-eremuaren, hiri-eremuaren eta naturguneen arteko oreka eta integrazioa bultzatzea, lurraldearen kudeaketan eragin ekologikoa modulatzeko eta geldiarazteko

---

Agroekologia erabiltzea, natura errespetatzen duten ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-praktiketan oinarritutako eredua baita, eta elikadura-subiranotasuna sustatzea, elikadura-sistema bidegabe eta jasangaitza eraldatzeko estrategia gisa

---

Eredu jasangarri baterantz jotzeko bidezko trantsizio energetikoa ahalbidetzen duten ekimenak bultzatzea, bai eta subiranotasun energetikoa sustatzea ere, energia berriztagarriak ekoiztu, kudeatu eta kontsumitzeko eredu kooperatiboak garatuz

LANKIDETZA

Kapitalismoan nagusi diren indibidualismoaren eta lehiaren aurrean, Ekonomia Solidarioak autoantolaketarako proposamen gisa ulertzen du lankidetza, elkartasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritua, premiak asetzeko eta guztion ongia lortzeko. Horretarako, lankidetza-sareak ehuntzen ditu, agenda kolektibo eraldatzailea bultzatzeko eta honakoak sustatzen dituzten espazioak antolatzeko: demokrazia zuzena eta parte-hartzearen etika, horizontaltasuna eta autonomiarekiko errespetua, parte-hartzaileen ahalduntzea eta boterearen birbanaketa.

Ikuspegi horrekin bat, lankidetza prozesuek erantzunkidetasuna, elkarlana, talde erabakimena, jakintza partekatuak eta elkarrekiko ikaskuntza sustatzen dituzte. Balio eta praktika horiek beharrezkoak baitira bestelako erakundeak eta ekimenak eraikitzeko eta, era berean, ekonomian eta gizartean eredu solidarioa, berdinzalea eta askotarikoa garatzeko.

Ekonomia Solidarioak lankidetzan eta elkarren arteko mendekotasunean oinarritutako kultura sustatzen du erakundeen artean, pertsonak eta komunitateak bakartzen dituen eredua gainditzeko. Mutualismoaren eta kooperatibismoaren ondare historikoaren oinordeko, betiere beste gizarte mugimendu kritiko batzuekin eta beste ekonomia eraldatzaile batzuekin partekaturik, lankidetzak estrategia kolektibo eta anitzen garapena sustatzen du, ezagutzak partekaturik, sarean lan eginik, eta ahaleginak nahiz baliabideak bateraturik. Horri esker, elkarrengandik ikasten da eta esku-hartzeko nahiz kudeatzeko modu demokratikoagoak, solidarioagoak, bidezkoagoak eta jasangarriagoak hedatzen dira.

Lankidetzazko kulturari esker, erakundeek ikuspegia eta balioak partekatzen dituzte. Lankidetzak duen hezkuntza-dimentsioak sustaturik, gainera, hobeki ezagutzen da lurraldearen eta bizitza komunitarioaren aniztasuna. Azken buruan, Ekonomia Solidarioak bere osagai nagusitzat sustatzen du lankidetza, elkarlanean oinarrituriko harreman ekonomiko demokratikoak eta gardenak eraikitzeko.

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

Lankidetza sustatzea, lehiaren ordez, bai erakundeen barnean, bai kanpoan

---

Gobernantza eredu demokratikoak bultzatzea, autonomia askatasun-printzipio gisa errespetatuko dutenak, erantzunkidetasuna eta autokudeaketa bermatuko dituztenak, eta ahalduntzea, aukera-berdintasuna, errespetua eta inplikazio erantzunkidea ahalbidetuko dituzten tresnak garatuko dituztenak

---

Erakundeetan bertan parte hartzeko espazioak sortzea inplikatutako pertsona guztientzat: bazkideak, langileak, zerbitzuen onuradunak, etab

---

Pertsonen eta erakundeen premiei arreta eta laguntza kolektiboa ematea, bai eta kalteberatasun- eta hauskortasun-egoerei ere

---

Elkarrekiko konfiantzan oinarritutako lan-harreman saretuak sustatzea, erakundeen autonomia errespetatzeko eta haien indartzea sustatzeko

---

Erakundeen arteko lankidetza erraztu eta bideratzeko estrategiak bultzatzea, lankidetzaren dimentsio ekonomikoa indartuz, lankidetzako enpresa-estrategia gisa ulertuta, guztien arteko indartzean oinarrituta

---

Lankidetzako tresnak diseinatu eta partekatzea produktuen eta zerbitzuen ekoizpen kooperatiboan, finantzaketa etikorako tresnen sostengu kolektiboan, Merkatu Sozialaren hedapenean edo kontsumo kooperatiboaren sustapenean, besteak beste, elikaduran, energian, etxebizitzan, kulturan, etab

---

Ekimen eraldatzaileen eragin-gaitasuna eta inpaktua handituko duten kanpaina, proiektu eta ekimen bateratuak sustatzea eta haietan parte hartzea

---

Erakundeen sare-egituraketa bultzatzea, esparru guztietan hedatzeko (tokikoa, eskualdekoa eta nazioartekoa) eta, era berean, lankidetza publiko-sozial-komunitarioa sustatzea, Ekonomia Solidarioa bultzatuko duten politikak garatzeko, bai tokian-tokian, bai nazioartean

ABERASTASUNAREN BIDEZKO BANAKETA

Gure planetak behar duen trantsizio ekosoziala ahalbidetuko bada, kolokan jarri beharra dago egungo pentsamendu ekonomiko nagusia, jendearen eta planetaren zerbitzuan dagoen egiazko ekonomia aldarrikatuz eta, era berean, aberastasuna jasangarritasunez sortzea eta era bidezkoan banatzea sustatuz.

Ekonomia Solidarioak proposatzen du aberastasun kontzeptua bestela eta bere osoan aintzat hartzea, bai eta hura erantzunkidetasunez banatzea aldarrikatu ere. Horrenbestez, honela ulertzen dugu aberastasuna: komunitate batek bere kideen beharrei epe labur, ertain eta luzean erantzuteko duen gaitasuna eragiten duten elementu material, sozial, kultural eta natural guztiak dira.

Horrela, beharrezkoa zaigu aberastasuna era bidezkoan sortu, banatu eta kontserbatzeko talde estrategia bat lantzea bizitzaren erreprodukziorako eta jasangarritasunerako. Aldi berean, horrek berekin dakar diruaren erabilera eta balioa birmoldatu beharra, komunitatean oinarritutako ekonomia baterako tresna izan dadin, gizarte ekitatiboak, inklusiboak eta autonomoak eraikitzeko aukera izan dezagun.

Jarduera ekonomikoaren izaera kolektiboa onartzen dugu eta, horregatik, elkarte arloko tradizio multzo bat txertatu dugu, hala nola kooperatibismoa, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, bidezko merkataritza, zaintzen ekonomia edo finantza etikoak; horiek orok, izan ere, aberastasun integral hori sortu eta banatzen dute ekimen autonomo eta jasangarrien bidez.

Aberastasuna sortu eta era bidezkoan banatzeari esker, inpaktu bat susta dezakegu lurraldeko gizartean eta ekonomian, eta hori onuragarria da ongi bizitzeko, eredu sozioekonomiko bidezkoagoak eta jasangarriagoak eraikitzen lagunduko duten zirkuituak hedatuz. Horrek, aldi berean, sozialki beharrezkoak diren lan inklusiboak eta kalitatezkoak sortzeko aukera ematen du pertsonen premien zerbitzuan.

Beren jardueraren dimentsio ekonomikoa aitortzeko eskatzen die printzipio horrek Ekonomia Solidarioan diharduten erakundeei, bai eta soberakinak sortu, berrinbertitu eta banatzeko dakarren ardura onartzeko ere. Horretarako, aipatu soberakinak arduraz erabiltzea eta era bidezkoan banatzea sustatzen da, horrek, batetik, bidezko banaketaren bidez, jendearen premia materialak eta soziokulturalak asetzea ahalbidetu dezan eta, halaber, bizitza-proiektuekin bat datorren lan eta gizarte ingurunea ahalbidetu dezan. Eta bestetik, erakundearen finantza-egitura finkatzeko aukera eman dezan, haren autonomiarako zein jasangarritasunerako berme gisa. Azkenik, lagungarria da Ekonomia Solidarioak bere finantza-zirkuituak sortzeko eta eraldakuntza ekosozialaren zerbitzuan jarduteko.

Printzipioak, era berean, dei egiten die pertsonei eta erakundeei kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea sustatzera, bai eta hezkuntza ekonomiko eta finantzarioa sustatzera ere, elkartasunaren eta justizia sozialaren balioekin bat.

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

RSoberakinak berriro inbertitzea, erakundeak garatu, sendotu eta patrimonializatzeko

---

Ekimen kolektibo eraldatzaileak eta elkartasun komunitariorako mekanismoak sustatu eta babestea

---

Gizarte eta ingurumen erabilerako irizpideekin bat inbertitzea

---

Finantza-sistema etiko eta solidario bat garatu eta sostengatzea, jabetza kolektiboaren, partaidetzaren eta gardentasunaren printzipioek gidatua, ekonomia errealera bideratua, integrala eta inklusiboa, elkartasun komunitarioa sustatuko duena eta interes kolektiboaren zerbitzura egonen dena

---

Neurketa, azterketa eta ebaluazioa egiteko tresnak erabiltzea, soberakinen birbanaketan eta berrinbertsioan kudeaketa demokratikoa eta gardentasuna bermatzeko

---

Ekoizpen, banaketa, finantzaketa eta kontsumo arloko prozesuak Merkatu Sozialean txertatzea; hori estrategia partekatua baita Ekonomia Solidarioaren eta hartan diharduten erakundeen eragin onuragarriak eta ahalmen eraldatzailea areagotzeko

INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA

Elkarren arteko mendekotasuna eta ekomendekotasuna aitortzearen ondorioz, eta Ekonomia Solidarioaren ekimen eta erakundeen asmo eraldatzailearen eraginez, benetan handia da erakunde horien eta haien garapen-ingurunearen arteko harremana, eta ingurune hori hobetzeko konpromisoa dute. Tokiko begirada bat da eta, horrekin batera eta osagarri, maila globalean justizia ekosoziala lortu nahi duten lurraldez gaindiko dinamiken arteko loturak ulertu behar dira.

Ingurunearekiko konpromisoak berarekin dakar ezagutu, aitortu, inplikatu, lankidetzan aritu eta egokitu beharra dagoela Ekonomia Solidarioaren sare soziekonomikoa osatzen duten gainerako eragileekin, sare horretan baitago sustraitua. Berarekin dakar, halaber, lurraldean oinarritutako ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduen sustapena eta bultzada, hobekuntzarako proposamenak eraikitzeko eta, efektu biderkatzailea eragiten duten aliantzen bidez, eraldakuntza ekosozialerako agenda bat prestatzeko, tokikotik globalera jotze aldera.

Era berean, konpromiso handia dakar tokiko kulturarekin eta, aldi berean, aitortu behar da badirela hainbat identitate eta adierazpen sozial nahiz kultural. Ikuspegi horrekin bat, konpromisoak bereziki dakar ingurunean desabantaila sozialean diren pertsona kalteberak ezagutu eta aintzat hartzea, haien premiei eta interesei erantzunak eman ahal izateko, betiere Ekonomia Sozialaren ekimenen bidez eta eredu sozioekonomikoa eraldatuz haien gizarteratzea sustatze aldera.

Ingurunearekiko konpromiso hori garatze aldera, zaindu eta sendotu beharko dira, bai loturak, bai sare lana, Ekonomia Solidarioan diharduten pertsonen eta erakundeen artean, eta era berean, beste sare batzuekin aliantzak ezartzea, haiekin batera subjektu ekonomiko, sozial eta politiko solidarioa, feministaren arrazakeriaren aurkakoa eta dekoloniala eraikitzeko. Garrantzitsua da, halaber, aniztasuna eta dibertsitatea onarturik, elkarlanean aritzea beste eragile sozial eta instituzional batzuekin, lurraldea eraldatzeko politikak eta estrategiak garatze aldera.

Konpromiso honi eutsiko bazaio, kontzientzia hartu beharra dago gizartearen eta lurraldearen errealitateaz eta, horrez gain, komunitateko kide izatearen sentimendua indartu. Horretarako, ingurunearekiko esku-hartzean, beharrezkoa da pertsonak, zaintzak, osasuna eta ongizatea erdigunean jartzea, natura subjektu gisa onartuz eta tokiko eta komunitatearen prozesuak sustatuz.

HONAKO HAU PROPOSATZEN DA PRINTZIPIO HAU GARATZEKO

Ekonomia solidarioaren ekimenen eta ingurunearen artean lankidetzazko, bidezko eta errespetuzko harremanak ezartzea

Inguruneari Ekonomia Solidarioko erakundeen errealitatea, helburuak eta emaitzak jakinaraztea, komunikazio tresna zein bide egoki eta irisgarrien bidez

Lurraldearen berezko baliabideak, gaitasunak eta ahalmenak baloratzea eta erabiltzea, garapen endogenoaren ikuspegitik

Ingurunea hobetzea, Ekonomia Solidarioak proposatzen dituen proposamen eta ekintzen bidez, eta, bereziki, harreman ekonomiko alternatiboak eta oinarri komunitariokoak bultzatzea

Lurraldean beharrak, desberdintasunak eta bidegabekeriak identifikatzea, erantzunen eta alternatiben garapena sustatzeko

Gogoz parte hartzea sentsibilizazioa, mobilizazioa eta lurraldea eraldatzeko ekintzen garapena sustatzen duten tokiko sareetan eta gizarte mugimenduetan

Pertsonek komunitatean parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa izan dezaten sustatzea, eraikuntza kolektiboko espazio seguruak eta hurbilak sortuz, elkarrekiko zaintza-harremanetan oinarriturik

Lurraldean praktika ekofeministak ikusaraztea eta garatzea, eta komunitate ez-sexistak eta ez-diskriminatzaileak eraikitzen laguntzea

Landa-eremuaren balioa handitzea eta hiri-eremuarekin berdintasunez lotzea, lurraldeak antolatzeko modu erresilienteagoen alde eginez

Politika publikoetan eragitea, estrategia egokiak eraikitzeko eta, estrategia horien bidez, lurraldeak ongi bizitzearen ikuspegitik garatzeko

Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutun honen bidez, REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sareak ekarpena egin nahi izan dio ekonomia eta mugimendu kritiko eta eraldatzaileen multzoari. Halaber, haiekin guztiekin agenda bateratuak sortu eta aliantzak garatu nahi ditu lankidetzaren bidez, bai tokian-tokian, bai globalki, gure komunitateek eta planetak behar dituzten aldaketa sakonak sustatze aldera.

Gutunaren xedea da, era berean, edozein pertsonak, kolektibok, enpresak edo erakunde publikok jakitea zer balio sustatzen dituen Ekonomia Solidarioaren mugimenduak eta, halaber, balio horiek haien jarduera sozial eta ekonomikoan txertatzea egokien deritzoten moduan, bakoitzak bere aukeren barnean eta bere nortasunaren esparruaren baitan. Hori lagungarria izanen baita gure etorkizunak planteatzen dituen erronka ekosozialei aurre eginen dieten espazio eta harreman sozioekonomiko anitzagoak eta askotarikoagoak sortzen laguntzeko.

Azkenik, esan behar dugu ez dela printzipioen adierazpen erretoriko hutsa, baizik eta Ekonomia Solidarioaren erakundeak eta mugimendu osoa definitzen dituzten ezaugarri partekatuak. Horrela, erakundeen ekimen eta proiektu guztiek bere gain hartzen dituzten konpromisoak dira. Printzipioak, gainera, etengabe ebaluatzen dira Auditoretzako eta/edo Balantze Sozialeko tresnen bidez. Horrela, betetze-maila neurtzeaz landara eta hobekuntzarako neurriak sustatzeaz gain, emaitzen berri ematen da jendaurrean, bai eta Ekonomia Solidarioaren erakunde eta sareetan taupadaka ari den bihotzaren berri ere.

Espero dugu gero eta erakunde eta ekimen gehiagok bat egitea printzipioekin, eta, horrela, REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sareak ordezkatzen duen Ekonomia Solidarioaren mugimendua indartzea. Izan ere, ekonomia eraldatzea printzipio-kontua da sare honentzat. Bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzurako praktika alternatiboen garapena bultzatzen duten printzipioak baitira.

reas

red de redes de economía
alternativa y solidaria

www.economiasolidaria.org